



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko azaroaren 13an

97 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituenak. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzkoa (5. or.).

—Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina, Bardeako tiro poligonoa eraisteko batzorde misto bat sortzeari buruzkoa (6. or.).

—Galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina, bizilagunek utzitako Errala eta Artangako herriei buruzkoa (6. or.).

—Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Ludopatiei buruzko azterlana” kontusailaren betetzeari buruzkoa (7. or.).

—Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Berariazko aurreneurriak eta koordinazio jarduerak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (8. or.).

—Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Tabakismoaren aurkako Foru Plana” kontusailaren betetzeari buruzkoa (8. or.).

—Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Fonoteka proiektua” kontusailaren betetzeari buruzkoa (9. or.).

—Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Euskaltzaindiarentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruzkoa (9. or.).

—Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” kontusailaren betetzeari buruzkoa (10. or.).

—Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa” kontusailaren betetzeari buruzkoa (10. or.).

- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko programetarako” kontusailaren betetzeari buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko plana” kontusailaren betetzeari buruzkoa (11. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Proiektuak eta azterlanak egitea” kontusailaren betetzeari buruzkoa (12. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Euskaraz ikertzeko laguntzak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (12. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Komunikabideetan euskara sustatzeko programak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (13. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Material didaktikoa eta kulturala diseinatu eta argitaratzea” kontusailaren betetzeari buruzkoa (13. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Euskal hizkuntza sustatzeko kanpainak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (14. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Aholkularitza zientifiko eta teknikoaren funtzionamendua” kontusailaren betetzeari buruzkoa (14. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Noingo aireportuaren egoerari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, Ameriketako kontsultora batek egindako inkestan Nafarroako ospitaleek duten tokiari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Nafarroako Odol-emaileen Elkartearentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruzkoa (16. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Ikasketetan sakontzeko bekak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Hitzarmena Medikuen Elkargoarekin, ingeles teknika ikasteko” kontusailaren betetzeari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Entitateentzako diru laguntzak, komunitateko aurre-hartze programetarako” kontusailaren betetzeari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Udal osasuntsuen programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Aurrea hartzeko eta osasuna sustatzeko programetarako itunak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (19. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, aurrekontuko “Ikertzaileak prestatzeko bekak” kontusailaren betetzeari buruzkoa (19. or.).

H SAILA:**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- Nafarroako Foru Komunitateko Ararteko aukeratzeko arauak (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2000ko urriaren 23ko 85 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko Zuzenketa, Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektuari, Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

Zioak: Gobernuaren lege proiektua etxebizitzaren merkatuan esku hartzen duten agenteetako bati bakarrik zuzentzen zaio, hain zuzen ere promotore eta eraikitzaileei, eta ahaztu egiten du gizarteko sektorerik garrantzitsuena, hain zuzen ere babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen edo erosten dituztenak.

Gai hori ikuspegi zabalago batez jorratu behar-ko litzateke hurrengo etxebizitza planean.

2. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko osoko zuzenketa aurkeztu dio Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektuari.

Zioak: Nafarroako Gobernuak lege proiektu bat aurkeztu du Parlamentuan babestutako etxebizitzari aplikatzekoak zaizkien moduluak % 6an igotzeko, hau da, aurreikusita dagoen KPIa baino 3 puntu gehiagotan.

Nafarroako Gobernuak, neurri horrekin, bere egiten du babestutako etxebizitzaren prezioak merkatuaren mende egoteko joera, promotore eta eraikitzaileen teoriari jarraikiz. Ezin zen besterik espero, UPN-PSNren Gobernuaren politikak zintzo betetzen baititu aipatu promotore eta eraikitzaileek legegintzaldi osoan zehar emaniko aginduak.

Aztertzen ari garen foru lege proiektuak arazoak duen koiuntura-elementu bat, hain zuzen ere promozioaren prezioa, baizik ez du jasotzen, eta KPIaren gainera jartzen du "promozioak promotore pribatuentzat erakargarriak izan daitezzen". Baina inork ez du bere burua engainatu behar. Promotoreek berdin jarraituko dute BOEak sustatu gabe, baldin eta ez bazaie lurzoru publikorik eskuratzen, lurzoru pribatuaren merkaturia izugarri garestia delako. Eta lurzoru merkea eskuratuz gero, orain arteko esperientziak erakutsi du kostu horiek onargarriak direla.

Ildo horretatik, foru lege proiektuarekin batera datorren oroit-idazkiko datuek argi erakusten dute

babestutako etxebizitzaren promozioak behera egin duela, lurzoru publikoaren eskaintzaren araberak: hain zuzen ere, lurzoruaren eskaintzen denean promozio guztiak gauzatzen dira; lurzoruaren eskaintza publikorik ez dagoenean, ordea, ez da babestutako etxebizitzarik egiten. Azpimarratzeko modukoa da 1999an babespeko % 25 etxebizitza gehiago eraiki zirela 1998an baino, lurzoruaren eskaintza publikoa izan zelako. 2000. urtean, aipatu txostenari jarraituz, 500 etxebizitzaren promozioa egin da. Lurzoruaren zenbat eskaintza publiko geratu dira eman gabe eraikitzeko modurik ez zegoelako? Argi dago, beraz, eraikuntzaren kostuak ez direla erabakigarriak.

Ez da egia eraikitzeko kostuen gorakada izan dela promotoreek babespeko etxebizitzarik ez egiteko arrazoia. Lurzoruaren eta etxebizitzaren arloko Nafarroako Gobernuaren politika antzua izatea da etxebizitzaren merkatuak libreki joka dezan ahalbidetu eta sustatzen duena, betiere promotoreen eta lurzoruaren espekulazioan ari direnen mesedetan. Argi dago zein den Nafarroako Gobernuaren helburua: BOEak eraiki behar dira bai, baina gutxi. Horrela, etxebizitza eskatzen dutenek nozitzen duten egoera jasanezina da, itxaropenak ematen zaizkielako bai, baina BOEen gehiegizko eskaintzaren ondorioz lurzoruaren eta etxebizitza pribatuaren negozioak dauzkan perspektibak aldarazi gabe.

Bestalde, moduluetan egin nahi den % 6ko igoera honek kontuan hartu ez den ondorio bat eragin du. Lege honek berekin ekarriko du erosi nahi duten BOEaren zazpitik bat urteko beren diru sarrerekin ordaintzera egun ozta-ozta iristen diren pertsona asko etxea erosi ezinik uztea. BOEen amaierako prezioa % 6 garestiago jarri eta lansariak KPla adina (kasurik onenean) igotzen badira,

populazioaren zati handi batek ez du modurik izanen babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko.

Euskal Herritarrok taldean uste dugu etxebizitzarako eskubidea bermatzeko beharrezkoa dela etxebizitzaren arloan oso bestelako politika bat egitea, beste arreta gune batzuekin: alokairu merkeko etxebizitzak, lurzoruaren eskaintza publikoa alokatzeko etxebizitzetarako eta babes ofizialeko etxebizitzak egiteko, erosteko moduko etxebizitzaren promozio publikoa, jabetzapeko etxebizitzaren fiskalitatea, errenta baxuenak dituztenentzat alokatzeko moduko etxebizitzak eta abar.

Deigarria da, halaber, foru lege proiektuarekin batera datorren oroit-idazkian ez datozela bat etxebizitzaren gehieneko salmenta-prezioak eta proiektuak berak proposatzen dituenak. Metro karratu erabilgarri bakoitzeko 10.000 pezeta baino gehiagoko desfaseak daude, eta desfase horiek etxebizitza bakoitzeko milioi bat pezeta inguruko aldeak sorrarazten ditu. Aipagarri egiten zaigun beste akats bat da oroit-idazkiak esatea moduluen eta gutxieneko prezioen igoerak txikiagoa izan behar duela prezio tasatuko etxebizitza libreetan eta, hala ere, gero, amaieran, horietarako ere % 6ko igoera proposatzea.

Azken finean, formazko akats begi-bistakoak alde batera utzita, aurkeztu zaigun foru lege proiektua adabaki bat baizik ez da, hain zuzen ere promotoreek etekina ateratzeko duten irrikia asezteko, horretarako herritar askoren lansarien erosteko ahalmena gutxienez % 3 puntu jaitsiz.

Horrenbestez, Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak eta babes publikoko araubideko etxebizitzaren gehieneko prezioak ezartzen dituen Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen dugu.

F saila:
GALDERAK

Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko (Batzarre) Milagros Rubiok kontseilariak –eta beharrezkoa bada teknikariek–, dagokion Batzordean, ondoko galderei erantzutea eskatzen du:

Zioen Azalpena:

Nafarroako Bardea biosferaren mundu erreserba izateko kandidatura, 70 herrialdetatik etorritako ingurumen arloko adituen aurrean, aurkezteak berekin ekarri du galde egitea ea aditu horiek behar den informazio guztia jaso duten pertsonentzat, landaredirako, faunarako edo paisajerako tiro-poligonoan egiten diren biltegitratze, tiroketa, bonbardaketa eta abarrek eta jarduera horietan erabilitako materialek izan ditzaketan eta dituzten

ondorioei buruz. Gaur Nafarroako egunkari batean irakurri ahal izan dugu Claudio Daniel jaunak “aurreikusia duela gaur Ingurugiro Departamentuko teknikariek bilera bat egitea instalazioaren eraginei buruz”.

Ikusita dirudienez ingurumeneko eraginari buruz Bardeako Komunitateak aspalditik egin behar zuen azterlana ez duela egin, eta, guk daki-gula, Nafarroako Gobernuak sekula ingurumeneko eraginari buruzko azterlan osorik ez duenez egin tiro-poligonoak Nafarroan bete dituen ia berrogeita hamar urtetan, ondoko galderei erantzutea eskatzen dut.

Galderak:

1. Zein informazio zehatz eman zaio Buenos Airesko Unibertsitateko biologo eta Unescoko aditu Claudio Daniele jaunari tiro poligonoak daukan eraginari buruz (zarata, airea, isurketak, erabilitako armen osaketa, pertsonengan, landareetan, faunan eta abar duen eragina) gaur Nafarroako Gobernuko teknikariek izan duen bileran?

2. Bestelako zein informazio eman zaio aditu horri edo Unescoko adituen topaketan joandako gainerakoei Bardeako tiro-poligonoaren eraginari buruz?

Iruñean, 2000ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Bardeako tiro poligonoa eraisteko batzorde misto bat sortzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Bardeako tiro poligonoa eraisteko batzorde misto bat sortzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko (Batzarre) Milagros Rubiok, dagokion Batzordean, ondoko galderei erantzutea eskatzen du:

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoa eraisteko Batzorde Mistoa, Parlamentuko talde guztietako ordezkariekin, sortzeko asmorik? Baiezkoan, noiz sortuko du?

2. Ba al du Nafarroako Gobernuak, Parlamentuaren erabaki horren aurka, batzorde misto bat sortzeko asmorik, Parlamentuko talde batzuk kanpo utzita?

Iruñean, 2000ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Bizilagunek utzitako Errala eta Artangako herriei buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak bizilagunek utzitako Errala eta Artangako herriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Nafarroako Gobernua herri hustuekin egiten ari den politika horiek suntsitzearena da. Gure Komunitateak dituen arazo nagusietako bat lurralde desoreka da: zenbait eskualde zehatzetan (Iruñerria eta Erribera) biztanle kopurua gora doa

etengabe, eta beste batzuk, ordea, bereziki mendialdeko herri txikiak, bizilagunik ia gabe gelditzen ari zaizkigu. Arazoa larriagotu egiten da, Nafarroako Gobernuak ez dituelako behar diren jarduketak gauzatzen biztanle kopuruari eusteko Nafarroako lurralde osoan, eta banaketa demografikoa erregulatzeke eginkizuna, neurri handi batean, merkatuarena (industri enpresak eta zerbitzuenak) izatea galarazteko ezer egiten ez duelako.

Biztanle galera handiena pairatzen duten eskualdeetan ez da neurririk hartu azpiegituren arloan, enpresak ezartzeko, laborantza, industria edo zerbitzuetako ekinbide berriak sustatzeko. Beste administrazio autonomiko batzuek (Asturias, Aragoi...) premia horiek badirela onartu eta lurralde orekarako neurriak hartu dituzte -produktu ekologikoen eta sendagaien bide berriak, basoberritze ekologikoari laguntzea, komunikazioko azpiegituretako inbertsioa, baliabide turistikoak...); horiei esker, herritako exodoa geldiarazi da eta, kasu batzuetan, bizilagunik gabe noizbait geratu ziren herri batzuk berreaikitzeke aukera ere izan da.

Ildo honetan, Iruñean protesta ekintza bat egin da berriki, Nafarroako Gobernuaren aurrean, Foru

Komunitateko exekutiboak husturiko 52 herri eraisteko hartu duen erabakia dela-eta. Egun hauetan Errala eta Artanga herri hustuetako bizilagunei bertatik alde egiteko aginduak ailegatu zaizkie. 1998ko ekainean, gizakiaren garapen armonikoaren aldeko elkarteak Artanga herriaren usufuktuaren eskaera egin zion Nafarroako Gobernuari, kultura eta ingurumenaren aldeko jarduerak eta mintegiak egiteko asmoarekin. Gobernuaren erantzuna ezezkoa izan zen.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zer egin asmo du Nafarroako Gobernuak garai batean bizilagunek utzitako Errala eta Artanga herriekin?

– Egin al du Nafarroako Gobernua bizilagunik gabeko herriei buruzko azterlanik? Zein dira herri

horiek? Zer egin asmo du Nafarroako Gobernuak herri horiekin?

– Zein dira Nafarroako Gobernuaren arrazoiak Artanga herria eraisteko eta gizakiaren garapen armonikoaren aldeko elkarteak herri horren usufuktuaren gainean egin eskaerari ezetza emateko?

– Jarri al da Nafarroako Gobernua harremantetan gizarte elkarteekin herri horiek erabiltzeko aukerak bilatu eta eskaintzeko, eraitsi beharrean, beste administrazio autonomiko batzuek egin izan duten moduan?

Iruñean, 2000ko urriaren 27an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Aurrekontuko “Ludopatiei buruzko azterlana” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Ludopatiei buruzko azterlana” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Ludopatiei buruzko azterlana” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17900-6 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Laguntzak jaso dituztenak, laguntza horiek emateko irizpideak eta azterketaren xede diren eremuak zehaztea.

– Aurreikusitako kontusaila gastatu ez bada, zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dagoen.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Berariazko aurreneurriak eta koordinazio jarduerak” kontusailaren betetzear buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Berariazko aurreneurriak eta koordinazio jarduerak” kontusailaren betetzear buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Berariazko aurreneurriak eta koordinazio jarduerak” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17820-4 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Aurreikusitako jardueren zerrenda zehatza eta horietako bakoitzerako dauden aurrekontuak.

– Kontusailean jasotako diru guztia gastatu ez bada, zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dagoen.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Tabakismoaren aurkako Foru Plana” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Tabakismoaren aurkako Foru Plana” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Tabakismoaren aurkako Foru Plana” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17790-9 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Planean aurreikusitako neurrien zerrenda, xehetasun guztiekin. Horietako bakoitzerako dagoen aurrekontua eta zein komunikabidetatik zabaldu behar diren (halakorik aurreikusi bada).

– Kontusailean jasotako dirua gastatu ez bada, zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dagoen.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Fonoteka proiektua” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Fonoteka proiektua” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Fonoteka proiektua” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17370-9 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Proiektuaren eta aurreikusitako gastu guztiei buruzko xehetasunak; gastu horien xedea.

– Kontusailean jasotako dirua gastatu ez bada, zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dagoen.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Euskaltzaindiarentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskaltzaindiarentzako diru laguntza” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Euskaltzaindiarentzako diru laguntza” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17360-1 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Gastuari buruzko xehetasun guztiak.

– Kontusailean jasotako dirua gastatu ez bada, zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dagoen.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Irabazi asmorik gabeko erakundeekiko hitzarmenak, euskara garatzeko programak egiteko” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17340-7 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Zein erakunderekin sinatu diren akordioak, xehetasun guztiekin. Zein izan da erakunde horiek hautatzeko irizpidea.

– Kontusailean jasotako dirua gastatu ez bada, zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dagoen.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Euskararen aldeko kultur ekimenak sustatzeko programa” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17320-2 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Aurreikusitako ekimenen zerrenda, xehetasun guztiekin. Zenbat diru jarri den horietako bakoitzerako. Laguntza horiek jaso dituzten entitatei buruzko xehetasun guztiak.

– Kontusailean jasotako dirua gastatu ez bada, zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dagoen.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko programetarako” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko azaroaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurrekontuko “Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko programetarako” kontusailaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko azaroaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

EA/PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, ondoko galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten.

2000. urterako aurrekontuetan, “Toki entitateentzako transferentzia arruntak, euskara sustatzeko” izeneko kontusail bat dago.

Horri dagokionez, ondokoa jakin nahi dut:

– 17310-5 aurrekontu-lerroaren betetze-egoe-ra

– Laguntzak jaso dituzten toki entitateen zerrenda eta haietako bakoitzak jasotako zenbatekoa.

– Kontusailean jasotako dirua gastatu ez bada zergatik ez den gastatu eta zein aurreikuspen dauden.

Iruñean, 2000ko urriaren 26an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Aurrekontuko “Foru Komunitateko Administrazioan euskara sustatzeko plana” kontusailaren betetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

